

HERRIALDEKO OMBUDSMANAREN GARRANTZIA

Juan San Martin Jn. Txit Gorena
Euskal Herriko Arartekoa

Jaun-andreok:

Hitzaldion hastapenean, atzo Lege Biltzarreko saioari hasiera eman zioten harrera-hitzak gogora ekarri nahi ditut, eta berriz ere ongietorrizko agur bero bat luzatu nahi dizuet.

Lehenengo eta behin Vitoria-Gasteizko alkate jaunari eman nahi dizkiot eskerrak, areto honetan bildu eta Ombudsmanaren III. Hitzaldi Europarra ospatzeko aukera eman digulako. Gainera esan beharra daukat, guretzat, Ombudsman garenontzat, giza eskubideen alorrean lanean gabiltzanontzat, oso toki egokia zaigula honako hau, zeren XVI. mendean “Ius gentium”aren ideiak garatu zituen A. Frantzisko Vitoriakoaren izen ona bait daroa areto honek. Ohoregarria da gu guztiontzat, eta horregatik egingo diogu ongi merezi duen omenaldia, hiri honetan bere monumentuaren aurrean, eta aldi berean bere *De indis insularis* eta *De iure belli* obrak faksimil eran berrargitaratzeaz.

Dakizuenetz, Gaio erromarrak, *Institutionum* bere lan ospetsuan eman zuen ezagutzera, lehen aldiz, “Ius gentium” delako ideia gizakien zuzenbidearen alde, gerora Frantzisko Vitoriakoak berriz hartu eta garatuko zuena Nazioarteko Zuzenbide modernoaren oinarriak ezartzeko, eta ondoren Hugo Grotio holandarrak taiutu eta landu zuena.

Horregatik, Genebako Nazioen Jauregia eraiki zutenean, bere areto nagusiari ere Francisco de Vitoria izena eman zitzaion, aldi berrietako giza eskubideen sendarpenaren Errenazimenduko aitzindari gisa, eta areto hori Jose M. Sert katalan margolariak motibo alegorikoez apaindu zuen.

Europaren Mendebaldea osatzen dugun herriok erromar tradizioan sakon erroturiko kultur ondarearen oinordeko gara, bere garapen tekniko eta juridikoarekin, eta hori bere aldetik antzinate grekoaren pentsamendu aztertzailearen ondorioa zen, zeinak izan ziren humanismo errenazentistaren oinarri, eta kultur altxor europar komunaren eratzaila.

Beste alde batetik, aditzera eman nahi dut, honez gero ohartu zaretenez, txosten hau oso-osorik euskaraz garatuko dudala, zeren Schuchardt hizkuntzalari austriarrak zioenez, zaharra ez, baizik antzinakoa baita, eta hain zuzen ere herri honek duen identitate-ezaugarri garrantzitsuen.

Euskal Herriaren hizkuntza honen berezitasuna dela eta, arrotz eta bertakoen fantasiengatik iritzirik harrigarrienak leporatu zaizkigu, baina behin baino gehiagotan Telesforo de Aranzadi gure antropologo jakintsuak argi eta garbi utzi zuenez, “Euskal Herria ez da enbor bitxi bat Europaren Mendebaldean”. Aitzitik, Europa osatuaren bokazioz hornitua da eta gainerako europarrek dituzten kezka eta arazo berberak dituen herri batean zaudete.

Herrialde honen ulergarri agertu ditudan sarrera-hitz hauen ondoren, noan egungo zereginetara, garatuko dudan hitzaldia “herrialdeko Ombudsmanaren garrantzia” izenburu duelarik.

Eztabaida faltsua litzateke, hizlari honen nahiarekin bat ez datorrena, auzi hau herrialdeko Ombudsmanaren bertuteak estatuko edo tokiko ombudsmanei kontrajarririk goratzea. Inondik ere ez dut horrelako asmorik. Ombudsmana XX. mende honen bigarren erdian munduan zehar ugari barreiatu den irudia den arren, ongi jakina da irudi honek eredu amankomun batean duela iturburua, monarkia absolututik konstituzionalismorako igarobidean jaiotako Ombudsman suediarrean alegia. Baina esan beharra dago, irudi hori oso era desberdinetan mamitu dela horrelako erakunde bat bere baitan hartu duten lege arautegi desberdinetan.

Esate baterako, aginte legegilearen zerbitzuan fiskalizazio-sail burujabeak diren ombudsmen-ekin batera, aginte betearazlearen menpean, zeregin berdintsua duten sailak ere elkarrekin bizi dira.

Hiritarrak zuzenean Ombudsmanarengana iristeko bidea ematen duten erakundeen alboan, badira beste batzuk zeharka bakarrik iristeko aukera eskaintzen dutenak.

Ikerketa-ahalmenak, iharduera-eremua, hautespen-prozedurak berak ere komisionatu desberdinetan aldakorrek dira, eta guztiekiko amankomuna den elementu bakarra beren azken helburua dute: Administrazioaren jardueren aurrean hiritarren eskubideak babestea.

Bestalde, ombudsman kontzeptuaz egiten den erabileraren inflazioa dago, eta izen horrek, gizarte-mailan lortu duen izen onaren adierazgarri bada ere, irudi hori arinkeriaz tratatzera eramán gaitzake, bere egiazko zeregin instituzionalari dagokionez, nahaste bat sortuz. Horrela, Espainiako hedapen handieneko egunkarian agertzen den “Irakurlearen Ombudsmana” sailaren alboan, izen bereko irudiak erruz ageri dira Europako unibertsitate desberdinetan, nola bankuetan hala zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa diferenteetan, baita ospitale eta administrazio-sailetan ere.

Horregatik, bada, —gainera ezin zitekeen bestela izan— beharrezkoa da Ombudsmana zehazten duten gutxienezko ezaugarri batzuk finkatzea, izaera hori ez duten beste irudi batzuei kontrajarririk, nahiz eta horiek ere eremu publikoan eta izen berarekin ari izan.

Beharrezkoa da, era berean, zehaztea, ezin dugula herrialde-ombudsmanaren kontzeptu zentzubakardunik sortu, ombudsman nazional edo tokikoari buruzkoan ere, nabaria denez, mamitu ezin dugun bezala.

Ez da izango beraz, Ombudsmanaren jarduera hedatzen deneko lurralde-eremua bere irudia ezaugarrituko duena; aitzitik, irudi horren zehazpena honako honetan datza: erakunde horren mugatzaile diren ezaugarrien gutxienezko izendatzaile komuna biltzen duen ombudsman kontzeptura egokitzean ala ez egokitzean.

Herrialdeko Ombudsmanarentzat eredu bakar bat ezartzerik ez dagoenez gero, ez litzateke bidezkoa, taiugabea eta antzua delako, ombudsman nazional eta tokikoekin konparatzea, zeren horiek ere ez baitute eredu mugatzaile bakarrik.

Herrialdeko Ombudsmanen artean konparaketa-parametrorik erabiltzerik ez badago, beren eremuko kategoria bakar gisa, Ombudsmanak aginte publikoen aurrean hiritarren eskubideak bermatzea den bere helburua zuzen bete dezan, orokorrean izan behar dituen ezaugarriak aztertzerako joko dugu.

Gogoeta hauek egiten baditugu ez da ombudsman orok ezaugarri guztiak eta bakoitza izatea proposatzen delako, baizik eta erakunde-eredu ideal bat finkatu nahi da, gomendatu zaion egitekoaren arrakasta segurtatu ahal izateko.

Zehaztapenezko ezaugarri horien azterketa egitean argi eta garbi ikusten dena baieztatu dezakegu, ombudsmanak dihardueneko herrialdetasun-eremua ez dela axolagabea honelako erakunde baten azken helburua lortzeari dagokionez.

Zentzu horretan, bere tonu didaktiko eta eskuragarriarengatik, erreferentzia gisa Donald C. Rowat irakasleak, Ombudsmanaren hedatzaile teoriko nagusienetakoa denak, irudi horrek bere jardunean arrakasta izateko beharrezko-tzat jo zituenak erabiliko ditut.

Kanadiar irakasleak ezarritako *lehen eskakizuna* da “kexuak zuzenean Ombudsmanaren bulegoan aurkezteko aukera ematea”, aurre-iragazkirik gabe, instituzioren batean gertatzen denez.

Ombudsmanaren irudiak izango zuen hedapen handiaren aurretik gertatu zen eztabaida doktrinazkoan, analista batzuek bazuten kezka figura horri buruz, zeren ordura arte eskandinaviarrena bezalako biztanleria mugatuko herrialde batzuetan ezarria baitzegoen, eta ez zekiten ongi funtzionatuko zuen estatu handietara, beren biztanleriaz ordura arte moldatzen zeneko eremua aise gainditzen zutenetara hedatuz gero.

Kexak aurkeztean aurre-iragazki bat ezartzea, baliagarri bada ere kexa-uholdeak instituzioa blokeatzen libratzeko, guztiarekin ere, horrek ekarri lezake hiritar gutxiak jotzea zeharkako sistema horren bitartez, eta horrela, azken batean, figura horiek, nolabait, urrundu egiten dira sortu zireneko asmo eta helburuetatik.

Horregatik ombudsmanek diharduteneko herrialde eta biztanlego-eremua ez da axolagabea hiritarrek komisionatuenganako irispidea izateari dagokionez.

Zentzu horretan, esan genezake jatorrizko eredu eskandinaviar horretara gehien hurbiltzen direnak estatu ertain eta txikietan ari diren ombudsmanak direla, baita, horrez gain, herrialde gehienetan dihardutenak ere. Ez da izango, beraz, Ombudsmanaren izaera estatal, erregional edo tokikoa elementu diferentziagarria, dihardueneko eremuaren tamaina baizik.

Horregatik esan genezake komisionatu erregional gehienak egoerarik hoberean aurkitzen direla hiritarren kexak zuzenean jasotzea bultzatzeari dagokionez.

Gertaera gisa esan genezake, hala ere, bere eskuera biztanlego handienera hedatzen duen Ombudsmana ez dela inongo estatu independenteetakoa, bai-

zik eta Uttar Pradesh, Indiako Estatu federalekoa; herrialde horrek 110 milioi lagun baino gehiagoko biztanleria biltzen du, eta bertako Ombudsmanak, kontraesana bada ere, kexa-kopuru txikiena jaso zuen 1978. eta 1979. urteetan, 100 eta 200 kexa baizik ez.

Rowat irakasleak ezarritako *bigarren eskakizuna* da “hiritar guztiek eza-gutzea bulegoa, eta irispide errazekoa izatea”.

Jakina, Ombudsmana ahalik eta hiritar gehienek ezagutuko badute, era-kundeak horren aldeko jarrera agertu beharko du, batez ere bere betekizunak ageriki aitortuz eta bere jardueren berri jendaurrean eta iritzi publikoari zabal-kundez emanik.

Ombudsmanarengana iristeko prozedura informal eta eragozpen burokra-tiko gabeak erraztu egingo du, gainera, haren eta hiritarren arteko hurbiltasuna.

Zalantzarik ez dago berriz ere jarduera-eremu mugatuak, aldeze erregional eta estatu txiki eta ertainek dutena bezalakoak, hiritarrak gehiago ezagutzeko eta irispide errazagoa izateko aukera ematen duela.

Horrela, bada, gogora ekarri nahi dut, instituzio honen eta hiritarren arteko hurbiltasunaren adibide gisa, Voralbergeko Ombudsmana den Nikolaus Schwärzler nire kide eta adiskideak nola atseginez erakusten zuen bere harridura, Euskal Herrira egindako bisita batean, Arabako herritxo batean emakume batek kalean gelditzen ninduela ikustean kexa bat ahoz aurkezteko.

Rowat-ek ezartzen duen *hirugarren eskakizuna* da “eskueren esparrua oso zabala izatea”.

Begibistakoa da Ombudsman batek askoz egokiago burutu ahal izango duela aginte publikoen aurrean hiritarren eskubideak bermatzeaz duen egitekoa, zenbat eta hedadura handiagokoa den bere eskuerak proiektatu ahal izateko daukan esparrua. Baiezta daiteke estatu-mailako ombudsmanak izango direla, Estatuko Administrazioaren aurrean bakarrik ez ezik, herrialde-Administrazioaren edo tokikoen aurrean ere eskudun direnak, hiritarrek aurkeztutako kexei hobekien erantzuteko gai direnak.

Era berean, Estatu osoan ez, baizik herrialdeko Ombudsmana edo tokikoa bakarrik dagoen herrialdeetan, bere eskuera-eremuan bakarrik jardun dezakeen tokietan, egundoko frustrazioa sor daiteke hiritarren artean eta, luzera, bidezkoa ez den oneritzi-galera erakunde horietan bere jarduera-eremuaz bestelako administrazioaren kontra zuzenduriko kexa ugari bideratu ezin izatean.

Nahiz eta hori horrela izan, aginte politikoaren lurralde-banaketa duten Estatuetan, zeinetan herrialde-mailako komisionatuekin batera estatu-mailako Ombudsmanak diharduen, herrialdeko Ombudsmanaren eskuera-maila askoz zabalagoa izango da, zenbat eta handiagoa den bere kontrola proiektatzen dueneko administrazioaren eskuera-maila, eta gainera, Estatuko Ombudsmanarekiko koordinazioaren bidez, egoki bideratu ahal izango ditu bere eskuera-eremua gainditzen duten kexak.

Rowat-ek proposaturiko *laugarren eskakizunak* adierazten duenez, “Ombudsman orok ahalmen zabalak izan behar ditu, erabaki lotzaileak ezin hartu ahal izatea salbu”.

Berriz ere, komisionatuen ahalmen-sorta bat ezartzean axolarik ez du izango bere jarduera hedatzen deneko herrialde-eremuak, aitzitik, askoz garrantzitsuagoa izango da Ombudsman bakoitzaren nolakotasuna bera.

Hala ere, garrantzizkotzat jotzen ditudan bi auzi azpimarratu nahi ditut.

Lehenengo eta behin, esan beharra dago berarizko garrantzia duela Ombudsmana ahalmendua egoteak bere jarduerak “ofizioz” burutzeko.

Ombudsmanak “*motu propio*” hasitako ikerketak alor jakin batera zuzentzen direnean, azterketa monografiko eta agortzaile bat egiteko asmoz, berriz ere lurraldetasun eta biztanleriazko baldintzek eragin nabaria dute ikerketari ematen zaion trataeran.

Izan ere, ikerketa hori gune zabaletan egiten bada, denbora eta bitarteko material zein pertsonazkoetan inbertsio handi bat egin ezean, laginketa-tekni-ken bitartez egin behar da derrigorrean, eta horiek arazo orokorrera hurbiltzeko aukera ematen badute ere, arazo hori bere osotasunean har daitekeelarik, hala ere, ez dute auzi zehatzagoak antzematen uzten, bisitatutako zentroetan izan ezik. Gogoan izan ditzagun, besteak beste, ospitale psikiatriko edo atxilotze-zentroetan egiten diren ikerketak.

Alderantziz, jarduera eremu mugatutan burutzen bada, ikertu beharreko zentro guztiak banan banan bisita daitezke, eta horrek aztertu beharreko arazo-en trataera oso eta orokorra egiteko aukera emateaz gainera, zentro bakoitzeko arazo konkretuak antzemateko aukera ematen du, berehalaxe konponbidean jartzeko.

Bigarrenez, funtsezkoa da Roberto Bobbiok “Zuzenbidearen sustapen-betekizuna” deitu zuena burutzea, eta horrek ahalmena ematen dio Ombudsmanari, aztertutako irizpideak ez ezik, arauak berak ere aldatzeko iradokizunak egin ditzan, ezarriak diren arau horiek hiritarren eskubideak zauritzen dituztela uste duen guztietan.

Ombudsmanaren egitekoari ezaugarri garrantzitsua ematen dion betekizun hori, estatu-mailako ombudsmanen jardueretan agertuko da bereziki, baita eskuera-eremu zabalez horniturik, herrialdeetako parlamentuek sortu dituzten ombudsmanen jardueretan ere.

Rowat irakasleak aipaturiko eskakizunen zerrendari amaiera emateko, *bostgarren eta azken eskakizuna*, eta seguraski garrantzitsuena da “Ombudsmana erabat independente izatea aginte betearazletik eta alderdi politikoen eragin guztietatik”.

Eskakizun hau betetzea erabakiorra gertatzen da Ombudsman gisa kontsideratua izateko. Bestela, aurkezten zaizkion kasu muntagabeei erremedioa jar-

tzen zeregin errespetagarria lukeen erakunde baten aurrean geundeke, baina ez zentzu estuan Ombudsman izenda litekeen zerbaiten aurrean.

Labur esateko, lehen gogoeta gisa, esan genezake herrialdeko Ombudsmanari garrantzia ez datorkiola dauden ombudsmanen artean ugarien izatetik, baizik eta hiritarren eskubideak bermatze-betekizunean Ombudsmanaren nondik norakoa zehaztu behar duten ezaugarrietara egokitu edo ez egokitzeak.

Bistan dago planteamendu horrek ez duela esan nahi axolagabea denik estatuko Ombudsman, herrialdeko edo tokikoa ezartzea, guztiz kontrara baizik, eredu horietako bat edo bestea aukeratzea Estatu bakoitzaren egoera zehatzaren baitan egongo dela.

Europako Kontseiluak berak egin zuen gomendio bat Ombudsman irudia hedatzearen alde, eredu jakin bat zehaztu gabe. Estatu kideen Ministrarien Komiteak irailaren 23ko 13/1985eko Ebazpenean, honako hau gomendatzen die herrialdekideei:

a) "Azter dezatela, Ombudsmana izendatzeko edo bere izendapena sustatzeko, estatu, herrialde, edo tokiko mailan, edota administrazio publikoaren esparru berezietan.

b) Ahaleginak egin ditzatela, ombudsmanak arreta berezia eskaini dezan, jadanik horrela egiten ez badu behintzat, bere eskuera orokorraren baitan, azterketapean jarrita dauzkan giza eskubideekin zerikusia duten auziei eta, nazioaren legeriak horretarako aukerarik ematen badu, ikerketak hasarazi eta irizpenak eman ditzan giza eskubideak jokoan daudeneko auzi guztiei buruz.

c) Bitarteko guztiak erabil ditzatela Ombudsmanaren ahalmenak ugaritu eta sendotzeko, Administrazioaren jardueretan giza eskubide eta oinarrizko askatasunetik benetako begirunea izatera bultza dadin".

Begibistakoa da Estatu baterakoiek eredu zentralizatuaz baliatzen direnek, estatu-Ombudsman baten aukera egingo dutela, eta gehienera ere, bere barne-antolamenduan, egoki baderitza, lurralde-mailako ordezkariak izango dituela.

Auzia batez ere estatu federal, eta kuasi-federal edo herrialdeka osaturik daudenetan gertatzen da nagusiki, zeinetan aurretik badagoen aginte politikoa-ren lurraldezko dezentralizazioa.

Kasu horretan, hiru dira teoriarik leudekeen aukerak:

a) Lehen aukera izango litzateke Estatu osoan eskuera duen estatuko Ombudsman bakarra izatea, eta bere jarduera-eremua Estatuan diharduten administrazio publiko guztietara hedatzea.

Eredu hau, guztiz bideragarria bada ere, ez dugu uste oso bat letorkeenik erabakimen politikoa gune desberdinetan banaturik dituen dezentralizazio ereduarekin.

b) Bigarren aukera izango litzateke estatu-Ombudsman ez dagoen Estatu batean herrialde-mailako legebiltzar komisionatuak izatea.

Kasu horretan, lurralde-erakunde autonomoen berezko antolakuntza printzipioaren oinarrian, aurkituko genuke, horiek erabaki lezaketela eskubideen babeslea den irudi horretaz beren buruak ez hornitzea.

Horrelako ereduari jarraitzeak bi gogoeta-mota eragiten ditu:

Lehenik, autonomi lurralderen batek Ombudsmana ez ezartzea erabakiko balu, herrialde horietako hiritarrek eskubideen babesean berme-maila txikiagoa dutela aurkituko genuke, administratuen eskubideen alde, beren aginte publikoen kontrol-sisteman figura hori sarraraztea erabakiko luketen herrialdeen aldean.

Bigarrenez, herrialde-mailako Administrazioaren eremuaz haraindi kontrol hori ezin hedatu ahal izateak, Ombudsmanaren kontrolaz kanpoko guneak izatea ekarriko luke, hiritarengan beraiengan frustrazio handia sortuz, izan ere estatu-administrazio edo tokikoaren kontra zuzenduriko kexak beren biderapenerako era egokirik ez dutela ikusiko bailukete, eta horrek luzera erakundearen beraren oneritzi-galera lekarke.

c) Azken aukera bat izango litzateke Estatu berean estatu-Ombudsman bat eta herrialdeko ombudsman desberdinak bizikide izatea.

Begibistakoa da eredu horrek giza eskubideen defentsaren berme-sisteman itxiera-elementu gisa jokatu lukeela, eta berorri esker ez litzateke hiritarrik geldituko Ombudsmanaren erakundeetara jotzeko ahaltasunetik kanpo, eta aldi berean Administrazio publiko guztiak komisionatuen kontrolpean edukitzea aukera emango luke.

Hori horrela izanik ere, autonomiaz hornituriko erakunde hauek erabakiak hartzeko ahalmena izatean, erakundearteko dituzten harreman beti korapilotsuen aurrean geundeke. Horrek harreman-sistema argi bat ezartzea eskatzen du, eta egitura arautuko duten printzipioak finkatzea.

Esan beharrik ez dago harreman horiek ez dagoela egituratzerik jerarkia printzipioa oinarritzat harturik, zeren abiapuntu horrek menpeko diren sailen arteko harremanak besterik ez bait litzuzke uztartuko.

Arazoizkoa izan liteke herrialdeko komisionatu eta estatukoaren jardueraren eremuak zehazki zedarrantzea, bakoitzaren kontrolpean jarritako administrazioak argi eta garbi finkatuz, eta kasu horretan sistemaren ardazte eta integratzea *konkurrentzia printzipiotik* etorriko litzateke, komisionatu desberdinen arteko harreman itxietatik abiatuz.

Alderantziz, baldin eta, espainiar kasuan bezala, ezarritako eredia Estatu-ko Defendatzailea eta autonomi komisionatuen arteko eskuertza konkurrentzia printzipiotik abiatzen bada, Administrazio publiko batzuen kontrolari buruzkoan disfuntzio eta bikoiztasunak baztertuz, sistema osatu baterako aukera eskaintzen duen harreman-gunea ezingo da izan jerarkia printzipioan ezta konkurrentziakoan ere oinarritu, koordinazio eta lankidetasun printzipioetan baizik oinarritu beharko da.

Printzipio horiek finkatzerakoan, ikusten da ez dutela, zehaztasunaren aldetik, jerarkia eta konkurrentzia printzipioek duten argitasunik, eta desbideratzeak gertatuz gero, zuzentzeko mekanismorik ez izatean, alderdien arteko leialtasunean oinarritutako harremanak eskatuko ditu, hiritarren eskubideen defentsan eragin negatiboa izan lezaketan disfuntzioei ihes egiteko.

Gai berari buruz sor litekeen funtzio-bikoiztasunak, lankidetasuneko bideak ezartzen ez badira, kontrol-bikoiztasuna sortaraz lezake eta horrek razionaltasun eza adieraziko luke erakundeen arteko eskuera-banaketan.

Ez dut gehiago sakonduko auzi hori, zeren hitzaldi hauetako beste txosten batean sakon aztertuko baita.

Herrialde-Ombudsmana zeinnahi ereduren barruan moldatzen dela ere, eta nolana hikoak direla ere Estatu dezentralizatuen barruan dauden harreman-zailtasunak, bat baino gehiago dira herrialdeko komisionatuak nabarmen ugaritzea zurbidetzen duten arrazoiak, baita ombudsmen europarren esparruan herrialdeetakoak hartzen ari diren gero eta garrantzi handiagoa ere:

a) Sistemaren logikak berak garamatza baieztatza, estatu dezentralizatuetan, aginte politikoaren herrialde-bereizketa dutenetan, autonomiaz hornituriko erakundeek, autoantolakuntza printzipioan oinarriturik, beren buruak beretzat sorturiko kontrol-organoez hornitzen ahaleginduko direla.

b) Begibistan dago Europa errealitate anitza dela, herri desberdinak elkar-tzetik sortua, kultura, etnia eta erlijio desberdinak dituen eta hizkuntz aniztasun handikoa, eta horrek erakusten digu aniztasun hori gatazka-sorburu izan daitekeela; beraz, sistemek mekanismoz horniturik egon behar dute, hori dela medio hiritarren eskubide bakar bat ere urra ez dadin.

Herrialdeko Ombudsmanak oso zeregin garrantzitsua izan dezake aginte publikoek errealitate anitz horri izan behar dioten begirunearen bermatzaile gisa.

Babestu behar horrek zentzu berezia hartzen du estatu hizkuntzanitzetan. Walter Kämpferrek aditzera eman duenez, Hizkuntz Zuzenbidearen erakuntzan sarritan emoziozko faktoreak izaten dira tarteko, eta auzia objetiboki lantzeko traba egiten dute.

Helvetiar Konfederakundearen bezala mendez mende pakean bizikide izatea ez da sarri gertatzen, aitzitik, maizago gertatzen da hiritarrak diskriminaturik sentitzea hizkuntz arrazoiengatik, are gehiago Europako herrialde askotan bereigarririk nagusia hizkuntza delarik.

Hori dela eta, Kanada bezalako Estatu batzuek Ombudsman bat behar delakoan daude hizkuntza ofizialei buruzko arazoei kontu egiteko, hizkuntza ofizialen Komisionatu Federala, edo Belgikan Ombudsmana ezartzeko proiektuak hizkuntz komunitate bakoitzerako Ombudsman bana begiesten ditu.

Ez dago zalantzan jartzerik Estatu dezentralizatuetan, eta gainera hizkuntzanitzak direnetan, herrialde-ombudsmanak izango direla hobekien erantzun diezaioketenak hizkuntz aniztasunaren defentsari.

Lehenik, “barne” erlaziotan, herrialdeko Komisionatu eta kexa aurkezten duten herritarren artean, beharrezkoa da herrialdeko Komisionatuaren Bulegoa elebiduna izatea, hiritarrak aukeratutako hizkuntzaz espedientea erabat bideratu ahal izateko. Hiritarrak darabilen hizkuntza berean solaskide izateak oso eragin ona du, honek Ombudsmanaren erakundea hurbil eta bere bezala hautemateko.

Autonomi herrialdeko egoera soziolinguistikoak badu, halaber, eragina, Ombudsmanaren kanpo-adierazpen garrantzizkoena, bere Parlamentuaren aurrean urtero aurkezten duen txostena gauzatzeko hautaturiko hizkuntza ere.

Horrela, ia erabat biztanlego elebiduna duten Galizia eta Katalunia bezalako autonomi komunitateetan, egoerak aukera ematen du herrialdeko hizkuntzan bakarrik idatziriko txostena aurkeztu ahal izateko. Alderantziz, bestelako egoera soziolinguistikoa duten Euskal Herria bezalako komunitateetan, txosten elebiduna aurkeztu beharra dago, biztanleriaren parte nagusi batek bere herrialdeko hizkuntza ezagutzen ez dutenei erantzunez.

Jakina, kexadunaren eta Ombudsmanaren arteko erlazioen alderdi hori ez da, auziaren trtaerari dagokionez, axola duen bakarra, baizik eta funtsean aparteko garrantzia du, halaber, herrialdeko ombudsmanen ardura, aginte publikoek ezein hiritar bazter ez dezaten hizkuntz arrazoiengatik, eta agintaritzak beren jardun-eremuan hizkuntz normalkuntzarako dituen legeak bete ditzan.

c) Dezentralizazio politikoaren justifikagarri gisa, horrek erabakigune politikoak hiritarregana hurbiltzea ekartzen duelako argudio ezeztaezin eta sakratutzat jarria da.

Zentzu berean, herrialdeko Ombudsmanak ere, dezentralizazio ideia horretan bertan kokaturik, hiritarrarekiko hurbiltasun kontzeptu horri erantzuten dio.

Alabaina, baieztapen horrek benetako edukia izan dezan, argi dago ez dela aski hiritarrarekiko hurbiltasuna, beharrezkoa da gainera herrialde-Ombudsmana behar besteko jarduera-tresnaz horniturik egotea, sortu duteneko eskubi-deak bermatzearen helburuari buruzkoan egoki jardutea egin nahi bada.

Herrialde-Ombudsmanak ez du hurbil dagoen erakunde bakarrik izan behar, baita erakunde eraginkor ere.

Areago, baieztza dezakegu eraginkortasun hori ez dela etorriko herrialde-ombudsmanei beren eginbeharrak betetzeko ematen zaizkien ahalmen zabaletatik, baizik eta diharduteneko Administrazioaren eskuera-eremutik batipat. Beraz, Komisionatuaren garrantzai berak ikuskatzen duen Administrazioaren ahalmen-mailari loturik dago.

Horrela bada, dezentralizazio politiko mugatua duten herrialdeetan, aginte publikoen jarduna garrantzi txikiagoko gaietara mugatzen den horietan, hiritarrei benetan ardura zaizkien auziak herrialdeko ombudsmanen kontrolaz kanpo geratuko lirateke.

Mundu guztiak daki, herrialde demokratikoetan bestetara ezin izan daitekeenez, oso gutxi direla, eskubide politiko eta askatasunak urratu diren ustetan, hiritarrek aurkezten dituzten kexak.

Alderantziz, ombudsmanen aurrean aurkezturiko kexurik gehienak aginte publikoak gizarte-eskubideak ez bete izana eta ohizko legeen urrapena izaten dute kexagai.

Horregatik, beharrezko izango da aginte publikoek, zeinen aurrean herrialdeko ombudsmanek diharduten, eskudun izatea gizarte-politika desberdinetan, herrialde-komisionatuek beren ahalmen guztia erakuts dezaten.

Politikoki dezentralizaturik dauden Estatuetan, gizarte-eskubideen lege jaurpidea autonomi komunitateak duen agintearen ikuspegitik bakarrik azter daiteke.

Bere lurralde-erakundearen eremuan dauka hiritarrak bere bizigune hurbilena eta bertan ezarriko zaizkio etxebizitza, osasungintza, hezkuntza, ingurugiro, kultura, gizarte-laguntza etabar bezalako gizarte-politikak.

Aginte publikoen jarduerak zeregin horretan duen konplexutasunak eskubideen urraketa eragotziko duen kontrol-sistema bat ezartzea eskatzen du eta, hain zuzen ere, sistema horretan sarrera betea du herrialdeko Ombudsmanak.

Europar eta munduaren gainerakoan, ombudsmanek mende honen bigarren erdian ezarri dira erabat, II. Mundu-Gerratea amaitzean, pertsonen eskubide eta askatasunak bermatzeko, basatikeriak berriro Europa hondatzen ez uzteko, zenbait herrialdetan kezka korrante bat sortu zenean.

Ombudsman hedapen hori bat etorri zen pertsonaren eskubideen defentsaren nazioartekuntzarekin, Giza Eskubideen Aitorpen Unibertsalaren eta giza eskubide eta oinarrizko askatasunen defentsarako Europar Hitzarmenaren bitartez, baita ekonomi ongizatezko uneekin ere, zeinek Gizarte-Estatua, Ongizate-Estatua deitu dena finkatzeko aukera eman zuten.

Horrela, bada, ombudsmenen jarduera estuki loturik joan da beti Gizarte-Estatua taiutzen duten gizarte-eskubideen defentsari.

Ongizate-estatuaren zutabeak auzitan jartzen diren une hauetan, Yugoslavia ohiko egoera lazkarriaren aurrean fantasma zaharrak berriz alderrai dabilzanean, Estatu-eredu berri bat taiutzera doan honetan, Ombudsman guztiok, eta bereziki herrialdeetakoak garenok, hori gogoan hartu beharrean gaude, elkartasun, gizarte-justizia eta gutxiengoenganako begirune printzipioak betez bakarrik burutu ahal izango dela, hain neke handiz eskuratutako eskubide eta askatasunak egiazko balioa izaten jarraitu dezaten.

ONDORIOAK

- 1.- Ez dago herrialdeko Ombudsman nozio zentzubakarrekorik Estatu-Ombudsman edo tokikoarenik ez dagoen bezala.

2.– Herrialdeko Ombudsmanaren garrantzia ez da etorriko herrialdetasun-eremu jakin batean jardutetik, baizik eta Ombudsman bat zentzu estuan zehaztu behar duten ezaugarriak izatetik.

3.– Donald C. Rowat irakaslearen arabera, Ombudsmana zehazten duten ezaugarriak eta, beraz, baita herrialdeko Ombudsmana ere, hauek dira:

- a) Kexak Ombudsmanaren bulegoan zuzenean aurkezteko aukera eman behar da.
- b) Bulegoa hiritar guztiek ezagutu behar dute eta irispide errazekoa izan behar du.
- c) Ombudsman orok ahalmen zabalak izan behar ditu, erabaki lotzaileak ezin hartu izatea salbu.
- d) Ombudsmanak erabat independentea izan behar du agente betearazletik eta alderdi politikoen eragin guztietatik.

Ezaugarri horietako batzuk egokiagoak gerta daitezke Ombudsmanak dihardueneko herrialdetasun-eremuan.

4.– Herrialdeko Ombudsmanak ezartzeko ahalatasuna Estatu federal eta kuasi-federal edo erregionaletan nabarmentzen da nagusiki.

Kasu horretan egin litezkeen hautakizun teorikoak hiru dira:

- a) Estatu-Ombudsman bakarra izatea.
- b) Ombudsman estatalik ez dagoen Estatuan herrialdeko legebiltzar komisionatuak izatea.
- c) Estatu berean Ombudsman estatal bat eta herrialde-ombudsmen desberdinak batera izatea. Kasu horretan disfuntzioak eragotziko dituen erlazio-sistema bat ezarri beharko da.

5.– Arrazoi bat baino gehiago daude herrialdeetako komisionatuen ugartze nabarmena zuribidetzen dutenak, politikoki dezentralizatutako Estatuetan:

- a) Sistemaren logikak berak garamatza baieztatzen Estatu dezentralizatuetan, beraiek sorturiko kontrol-organoez beren buruak hornitzera joko dutela.
- b) Europan errealitate anitza izateak herrialde-Ombudsmanaren garrantzia kontutan hartzen garamatza, hiritarren defentsa arrazoi linguistiko, etniko edo erlijiozkoengatik bereizkeriak eragotzeko.
- c) Dezentralizazioaren ideiak hiritarrarenganako hurbiltasun konzeptuari erantzuten dio.

Alabaina, ez da aski Ombudsman hiritarrarengandik hurbil dagoen erakunde izatea, gainera eraginkorra izan behar du.

6.– Funtsezkoa da herrialde-ombudsmanei egokituriko zereginetan gizarte politika desberdinetan eskudun diren agente publiko desberdinen aurrean gizarte-eskubideak defendatzen jardun ahal izatea.

7.- II. Mundu Gerrateaz geroztik ombudsmanak ia erabat hedatzea eta Ongizate-Estatuaren erakuntza ia batera gertatu ziren.

Gizarte-eskubideen defentsa Ombudsmanaren zereginari estuki loturik dago. Ongizate-Estatu horren eredu auzitan jartzen eta Estatu eredu berri bat sortzen ari den une honetan, ombudsmanek, oro har, eta herrialdeetako ombudsmanek bereziki, hiritarren eskubideen defentsan jardun behar dute elkartzuna, gizarte-justizia eta gutxiengoenganako begirunearen ildotik.

LA IMPORTANCIA DEL OMBUDSMAN REGIONAL

Excmo. Sr. D. Juan San Martín
Ararteko del País Vasco

Señoras y señores, en la presentación de la primera ponencia de estas jornadas quiero recordar las palabras de recibimiento que inauguraron la sesión de ayer en el Parlamento, dándoles nuevamente un caluroso saludo de bienvenida.

He de agradecer primeramente al alcalde de Vitoria-Gasteiz la oportunidad que nos ha proporcionado de reunirnos en este recinto para celebrar la Tercera Conferencia Europea del Ombudsman. Además he de añadir que para nosotros los ombudsman, que trabajamos en el campo de la defensa de los derechos humanos, se trata de un lugar idóneo, ya que esta sala lleva el nombre de Francisco de Vitoria, quien desarrolló en el siglo XVI la idea de "Ius gentium". Es un gran honor para todos nosotros y por ello le rendiremos un sencillo homenaje ante su monumento en esta ciudad, aprovechando esta reunión para reeditar sus obras de *De indis insularis* y *De iure belli* en facsímil.

Como saben, el romano Gayo, en su famosa obra *Institutionum* dio a conocer primeramente la idea del "Ius gentium" en favor del derecho de gentes, que luego retomaría y desarrollaría Francisco de Vitoria para sentar las bases del Derecho Internacional moderno, sistematizado y desarrollado posteriormente por el holandés Hugo Grocio.

Por ello, cuando se construyó el Palacio de las Naciones de Ginebra, a su sala principal también se le dio el nombre de F. de Vitoria, como promotor, en el Renacimiento, de la consolidación de los derechos humanos en la época moderna, y la sala fue adornada con motivos épicos del pintor catalán José M.^a Sert.

Los pueblos que componemos la Europa occidental somos herederos de un patrimonio cultural fuertemente enraizado en la tradición romana, con su desarrollo técnico y jurídico, consecuencia a su vez del pensamiento analítico de la antigüedad griega, que fueron las bases del humanismo renacentista, y han configurado un acervo cultural común europeo.

Por otra parte, quiero indicar que, como habrán observado, esta ponencia la voy a desarrollar íntegramente en euskara, idioma que, como decía el lingüista austriaco Schuchardt, no es viejo, sino antiguo, y que se constituye en la seña de identidad más importante de este pueblo.

Esta particularidad idiomática del País Vasco ha motivado la fantasía de propios y extraños para imputarnos las más sorprendentes consideraciones, pero como en más de una ocasión dejó patente nuestro sabio antropólogo Telesforo de Aranzadi, el País Vasco no es ningún cuerpo extraño en el occidente de Europa. Por el contrario, están en un país con una fuerte vocación europeísta y que comparte las mismas inquietudes y problemas que el resto de los europeos.

Tras estas palabras introductorias paso a desarrollar el título de la ponencia que me ha correspondido, que no es otro que "la importancia del Ombudsman regional".

Sería un debate falso, no acorde con los deseos de este ponente, plantear la cuestión como una exaltación de las virtudes de los ombudsman regionales en contraposición a los ombudsman estatales o locales. Nada más lejos de mi intención. De todos es

sabido que si bien la figura del Ombudsman difundida profusamente por todo el mundo en esta segunda mitad del siglo XX, trae causa de un modelo común, el Ombudsman sueco, nacido en el tránsito de la monarquía absoluta al constitucionalismo, lo cierto es que esta figura se ha plasmado de muy distinta manera en los distintos ordenamientos jurídicos que han acogido esta institución.

Junto con ombudsman concebidos como órganos independientes de fiscalización al servicio del poder legislativo, conviven órganos dependientes del poder ejecutivo.

Junto con ombudsman a los que el ciudadano accede directamente, existen otros a los que únicamente se puede acudir indirectamente.

Incluso las facultades de investigación, el ámbito de actuación, los procedimientos de elección varían en los distintos comisionados, siendo el único elemento común de todos ellos su finalidad última de defensa de los derechos de los ciudadanos frente a las actuaciones de la Administración.

Asistimos, por otra parte, a una inflación de la utilización del concepto de ombudsman, que si bien obviamente responde al prestigio social que dicho término ha adquirido, puede llevarnos a un tratamiento frívolo de esta figura, que conduzca a una cierta confusión de cuál es su verdadero papel institucional. Así, junto al Ombudsman del lector, en el diario de mayor tirada de España, proliferan figuras denominadas de esta manera en distintas universidades europeas, así como en bancos o en diferentes empresas prestacionales de servicios, e incluso en hospitales o dependencias administrativas.

Es por ello que, como no podía ser de otro modo, resulta necesario establecer unas mínimas características que definan al Ombudsman, en contraposición con otras figuras que, aun en el ámbito público e independientemente de su denominación, no participan de la condición de tales.

Es necesario, asimismo, precisar que no podemos acuñar un concepto unívoco de Ombudsman regional, como evidentemente tampoco lo podríamos plasmar de los ombudsmen nacionales o locales.

No va a ser, por tanto, el ámbito territorial sobre el que se proyecta la actuación de un Ombudsman el que caracterice al mismo, sino su adecuación o no al concepto de Ombudsman que reúna el mínimo común denominador de las notas que definen a esta institución.

No siendo por tanto posible establecer un único modelo de Ombudsman regional, sería impropio, por asistemático y estéril, tratar de compararlo con los ombudsmen nacionales y locales, los cuales, a su vez, también carecen de un único modelo definidor.

Ante la imposibilidad ya señalada de utilizar parámetros de comparación entre los ombudsmen territoriales, entendidos como categoría única en su ámbito, acudiremos a analizar las notas que deben de caracterizar al Ombudsman en general para conseguir un correcto cumplimiento de su finalidad garantista de los derechos de los ciudadanos frente a los poderes públicos.

Estas consideraciones se realizan en el entendimiento de que no se pretende que todos los ombudsman tengan que reunir todas y cada una de dichas características, sino que se trata de establecer un modelo ideal de institución, que permita asegurar el éxito de la tarea que le es encomendada.

Resulta evidente que en el análisis de estas notas definidoras, sí que podemos afirmar que el ámbito territorial en el que se actúe no es indiferente a una mejor adecuación para la consecución del fin último de la institución.

A tal efecto, utilizaré como referencia por su tono didáctico y fácilmente asequible, los requisitos que el profesor Donald C. Rowat, uno de los más importantes difusores teóricos del Ombudsman, consideró como necesarios para que esta figura tuviese éxito en su funcionamiento.

El primer requisito establecido por el profesor canadiense consiste en que “hay que permitir que las quejas se planteen *directamente* ante la oficina del Ombudsman”, sin que exista ningún filtro previo, como sucede en alguna institución.

En el debate doctrinal previo a la extensión generalizada de la figura del Ombudsman se manifestaba, por parte de algunos analistas, una reserva sobre si esta figura, establecida hasta el momento en unos países como los escandinavos, con una población muy reducida, podría funcionar adecuadamente si se extendía a los grandes estados que por su gran población excedían del ámbito en que hasta entonces se desenvolvían.

El establecimiento de un filtro previo en la tramitación de las quejas, si bien sirve para evitar que una avalancha de quejas bloquee la institución, sin embargo, motiva a su vez que sean pocos los ciudadanos que acudan mediante este sistema indirecto, propiciando en última instancia que estas figuras se alejen de alguna manera del objetivo para el que fueron creadas.

El ámbito territorial y poblacional sobre el que operan los ombudsman, por tanto, *no es indiferente en orden a un acceso a los comisionados más asequible por parte de los ciudadanos.*

En este sentido, van a ser los ombudsman que operen en estados medianos y pequeños, así como en la gran mayoría de las regiones, los que más se acercan a ese modelo primigenio escandinavo. No va a ser, por tanto, el carácter estatal, regional o local del Ombudsman el elemento diferenciador, sino más bien la dimensión del ámbito en el que actúa.

Podemos afirmar, por ello, que la gran mayoría de los comisionados regionales se encuentran en una situación óptima en cuanto a propiciar la recepción directa de las quejas de los ciudadanos.

A modo de anécdota podemos señalar, sin embargo, que el Ombudsman cuya jurisdicción se extiende a una mayor población no es ninguno de los grandes estados independientes, sino el Estado federal de la India, Uttar Pradesh, con una población total de más de 110 millones de habitantes, y que paradójicamente recibió el número más bajo de quejas, con 100 y 200, en 1978 y 1979 respectivamente.

El segundo requisito establecido por el profesor Rowat es que “la oficina debe ser *conocida* por todos los ciudadanos, y resultar fácilmente asequible”.

Ciertamente, el conocimiento generalizado de estas instituciones por los ciudadanos dependerá fundamentalmente de una actitud positiva de la institución de proyectar a la opinión pública la imagen y las actuaciones del Ombudsman, haciendo públicas sus funciones.

Un procedimiento de acceso informal y exento de trabas burocráticas facilitará, además, un acercamiento del Ombudsman a los ciudadanos.

Qué duda cabe que nuevamente un ámbito de actuación reducido, como el de la mayor parte de los defensores regionales así como el de los pequeños y medianos estados, permite, por su cercanía, un mayor conocimiento de los ciudadanos y un más fácil acceso.

En este sentido, me permito recordar, a modo de ejemplo de la cercanía de la Institución a los ciudadanos, cómo mi colega y amigo Nikolaus Schwäzler, Ombudsman de Vorarlberg, mostraba su grata sorpresa al comprobar, en una visita que realizó al País Vasco, cómo una ciudadana me paraba en las calles de un pueblecito alavés para plantearme una queja oral.

Un tercer requisito es el que establece que “el ámbito de competencias debe ser muy amplio”.

Resulta evidente que un Ombudsman podrá realizar más satisfactoriamente su función de garantizar los derechos de los ciudadanos frente a los poderes públicos cuanto mayor sea el ámbito administrativo sobre el que pueda proyectar sus competencias. Se puede afirmar que serán los ombudsmen estatales, competentes no sólo frente a la Administración central, sino también respecto a las administraciones regionales y locales, quienes mejor podrán responder a las distintas quejas planteadas por los ciudadanos.

En aquellos países donde, por el contrario, no existe un Ombudsman con competencia en todo el Estado, sino únicamente regionales o locales, que sólo pueden actuar en su propio ámbito de competencia, se puede producir una enorme frustración en los ciudadanos y a la larga un desprestigio injusto de estas instituciones al no poder canalizar el gran número de quejas dirigidas contra otras administraciones distintas a las sometidas a su ámbito de actuación.

Ello no obstante, en aquellos estados con una división territorial del poder político, en los que actúa un Ombudsman de ámbito estatal, junto con los distintos comisionados regionales, el cumplimiento de este requisito dependerá del ámbito administrativo sobre el que éstos actúen. El propio nivel competencial del Ombudsman regional será mucho más amplio, cuanto mayor sea el nivel competencial de la administración sobre la que proyecta su control, pudiendo además, en coordinación con el Ombudsman estatal, canalizar adecuadamente aquellas quejas que exceden de su ámbito competencial.

El cuarto requisito señalado por Rowat expresa que “todo Ombudsman debe contar con amplios poderes, excepto que no debe poder tomar decisiones vinculantes”.

Nuevamente en el establecimiento de un haz de potestades de los comisionados será indiferente el ámbito territorial sobre el que su actuación se proyecte, siendo más importante, por el contrario, la propia configuración de cada Ombudsman.

